

# IMMIGRAZIOAREN IKUSPEGIA GETXON

2009. URTEA //// 02. ZENB.



*Migrazio mugimenduak gizakia bezain zaharrak dira, baina laurogeita hamarkadaren amaieratik immigrazio fase berri batean gaude. Aurreko hamarkadatan etorkinak beste autonomia erkidegoetatik etorri ziren, laurogeiko hamarkadan isuriak inbertitu ziren eta gaur egun atzerriko etorkinak jasotzen ari gara. Biztanleria hau da panoramika honen helburua, bertan 2008ko urtean hasiera eman genien datuen ustiapena berrikusi dugu, gure udalerriko atzerriko immigrazioaren bilakaera ezagutzera emateko. Dokumentu horren hartzailerak instituzioak eta erakundeak dira, publikoak eta pribatuak, eta nahitaez berriro interpretatu behar dira, gaur egun Getxok duena bezalako gizarte anitzaren ikuspuntutik. Dokumentu honen helburua da hiritarren arteko migrazioa hobeto ulertzea. Argitalpen hau Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak egin du.*

Hasteko, panoramika horrek hiri kondaira jakina desmuntatu zuen; kondaira horrek immigrazio isuriak ikusi zituen kontrolik gabeko mugimendu kaotikoen emaitza gisa. Alderantziz, immigrazioek ia beti doitze finei erantzuten diete; izan ere, etorkinen %42a emakume latinoamerikarrak dira, eta milimetrikoki egokitzen dira beharretara. Baina kondairak kondaira dira eta hala irauten dute. Gure lana da datu onak ematea, eta Einsteinen baieztapena gure egitea; hau da "errazagoa da atomo bat desegitea, aurreiritzi bat baino".


## Alderdi demografikoak

**1.** Getxon, 2009ko urtarrilaren 1ean, 81.731 pertsona zeuden errolatuta, eta horietatik 5.524 pertsona atzerritarak dira, biztanleria osoaren % 6,4a, alegia.

1998tik tokiko biztanleria 5.200 pertsonetara jaitsi da, eta atzerriko biztanleria 4.200 pertsonetara igo da. Hala eta guztiz ere, GETXOK 1.244 biztanle galdu ditu azkeneko hamar urteetan.

Euskadin 132.200 atzerritar daude errolatuta, biztanleria osoaren %6,1a, gutxi gorabehera.

1. grafikoa. Getxoko populazioaren bilakaera nazionalitatearen arabera.1998-2009




**2.** Getxon dagoen Europar Batasuneko atzerriko immigrazioaren %20a Europar Batasuneko da.

Bilakaera horretan, bere pisua %20 murriztu da, eta, hala, 1998an %41,3a bazen, gaur egun Getxon erroldatuta dagoen bost pertso-

netatik pertsona bat Europar Batasunetik dator, 27, alegia, % 21,1, Errumania eta Bulgaria barne, 2007. urtean.

Hortaz, Europar Batasunetik kanpoko biztanleriak indarra hartu du, eta %58,7 izatetik %78,9 izatera igaro da.

2. grafikoa. Getxoko populazioa komunitarioa eta komunitatez gaindikoa. 1998-2009




**3.** Eremu geografiko bakoitzean, eztabai-dagarria da biztanleria latinoamerikarren presentzia; izan ere, hamar etorkinetatik sei etorkin latinoamerikarrak dira, %65a, hain zuzen, Bizkaiko batez bestekoa baino hamar puntu gehiago.


Garrantzia izaten jarraitzen dute Europar Batasuneko %21,1ak eta Asiako %7,7ak (Filipinetako pertsonak -%5,6- eta Txinako pertsonak %1,9).

Alderantziz, Magrebetik edo Sahara azpiko Afrikatik datozenek portzentaje txikiak dituzte: %3,2a dira bakarrik.

3. grafikoa. Atzerriko populazioaren osaera kontinenteka



4. grafikoa. Eremu geografikoaren arabera Getxon jaiotzen diren nazionalen tasa. Getxo, 2009




**4.** Era berean, Getxon 225 pertsona daude udalerrian jaiotzen baina atzerriko nazionalitatea dutenak, eta 1975 pertsona atzerrian jaiotzen baina nazionalitate espainiarra dutenak.

Horien %53,2a Latinoamerikako herrialderen batean jaiotzen zen. Azpimarratu behar da baita ere nazionalitate espainiarra duten pertsonen %23,3a Europar Batasuneko herrialdeetan jaiotzen zela. Ezin daiteke harreman zuzenik ezarri, baina itzuli ahal izan diren diasporako pertsonen gain, aspaldian finkatu ziren atzerri-tarren nazionalitate eskurapen etengabekoari buruzko zantzu garrantzitsuak izan genitzake.


**5.** Getxon erroldatutako hamar pertsonetatik sei emakumeak dira. Emakumeak nagusi dira baita tokiko pertsonen artean (%52,5) ere, are gehiago atzerritarren artean (%59,4).

Gehiengo horren arrazoia da atzerriko biztanleriak burutzen dituen lan motak, eremu pertsonaleko zerbitzuak eskatzen dituen gizartea oinarri hartuta (etxeko lanak, orokorreko zaintzak eta mendeko pertsonen arreta ematea). Datu garrantzitsua da emakume latinoamerikarrak atzerriko biztanle guztien %42,2a direla.

5. grafikoa. Getxoko populazioaren osaera nazionalitate eta sexuaren arabera. 2009



6. grafikoa. Feminizazio tasa eremu geografikoen arabera Getxon, 2009



**6.** Emakumeak nagusi dira latinoamerikarren artean (%64), eta baita Europar Batasunetik kanpokoaren artean (%73), baina azken honetako zifra absolutuak oso baxuak dira.

Europar Batasuneko, Asiako eta Iparramerikako pertsonen zifra orekatuagoak erakusten dituzte, bai emakumei, bai gizonei dagokienez.

Sahara azpiko afrikarren artean, ezaguna den moduan, gizonezkoak dira nagusi, zifra murrizetan.

**7.** Nazionalitate bakoitzeko feminizazio-tasak erakusten digu gehienak emakumeak direla, eta gehienak Paraguay (79,6%), Honduras (%76,5), Brasil (%67,7), eta Bolivia (%64,4) herrialdeetatik datozela; gainontzekoak, ia guztiak, Latinoamerikatik datoz eta immigrazio berriko herrialdeetakoak dira.

Kontrako aldean, gizonezkoak dira gehiengoa, Italia, Alemania, eta Suedia herrialdeetatik datozenak, eta beste europarrak, immigrazio zaharragoko herrialdeak.

1. taula. 20 kide baino gehiagoko nazionalitateak feminizazio tipologiaren arabera (%)

Gizonen nagusitasuna edo gehiengoa		Oreka		Emakumeen nagusitasuna edo gehiengoa	
Italia	34,7	AEB	45,7	Kuba	54,8
Alemania	38,1	Portugal	46,9	Frantzia	55,4
Suedia	39,3	Txina	47,5	Peru	58,3
Maroko	40,3	Argentina	49,0	Filipinak	60,1
Irlanda	40,6	Txile	51,0	Errumania	60,3
Erresuma Batua	41,5	Uruguai	52,8	Kolonbia	60,9
		Mexico	53,7	Ekuador	63,1
		Venezuela	53,7	Bolivia	64,4
				Brasil	67,7
				Honduras	76,5
				Paraguai	79,6
		Guztira	59,4		

**8.** Getxoko Udalerrian erroldatuta dauden atzerritarren hamar pertsonetatik lau pertsona (%39,5) Boliviakoa da, 1.500 pertsona baino gehiago.

Paraguay eta Kolonbia datoz jarraian, %13,4a eta %9,2a, hurrenez hurren. Errumania lehenengo europar nazionalitatea da, 355 pertsonekin, %8,5a osatzen dute eta.

100 pertsona baino gehiago dituzten hamabi herrialde garrantzitsuenen artean bost herrialde latinoamerikar aurki ditzakegu (Bolivia, Paraguay, Kolonbia, Ekuador eta Peru), lau europar (Errumania, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua), bi asiarrak (Filipinak eta Txina) eta afrikar bat (Maroko).

*2. taula. 2009ko nazionalitate kopurutsuenak (100 kide baino gehiago), bakoitzaren feminizazio tasa eta zenbait urtean atzerriko populazio osoan izan duten pisuaren eboluzioa. Getxo*

	2009			2008	2007	Hazkundera 2007-2009
	Guztira	Emakumeen %	%	%	%	%
Bolivia	1.546	64,4	39,5	41,4	39,7	- 0,4
Paraguai	426	79,6	13,4	11,0	8,7	53,8
Kolonbia	379	60,9	9,2	9,8	11,7	-21,7
Errumania	355	60,3	8,5	9,1	8,6	- 0,8
Ekuador	263	63,1	6,6	8,0	10,0	-34,4
Filipinak	233	60,1	5,6	4,1	4,0	39,6
Peru	228	58,3	5,3	4,6	4,3	21,3
Alemania	168	38,1	2,5	2,5	2,5	1,6
Frantzia	148	55,4	3,3	3,7	4,2	-22,7
Erresuma Batua	147	41,5	2,4	2,5	2,8	-12,8
Maroko	119	40,3	1,9	1,5	1,7	11,3
Txina	101	47,5	1,9	1,7	1,8	5,6
Gainerakoak	1.111	48,3	21,3	11,0	12,4	70,9
Guztira	5.224	59,4	100	5.048	4.459	

**9.** Atzerriko bi pertsonetatik bat 25 urtetik 44 urtera bitartekoa da. Ia %70a 17 urtetik 44 urtera bitartekoa da eta %3ak bakarrik ditu 65 urte edo gehiago. Egitura gazte hori eremu eta nazionalitate bakoitzean mantentzen da.

Urteetan zehar aldaketa txikiak ematen dira, egitura mantendu egiten da.

*3. taula. Getxon erroldatua dagoen atzerriko populazioaren adin egituraren bilakaera. %, 2009*

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
0-5	4,0	3,8	4,4	4,7	4,2	4,0
6-16	9,8	11,5	11,1	12,1	11,6	10,8
17-24	13,2	13,2	13,7	13,8	14,0	13,7
25-44	50,9	52,3	52,4	51,4	51,9	53,3
45-64	18,3	15,6	15,0	14,8	15,0	15,2
65-74	3,8	3,6	3,4	2,3	2,3	2,1
75 edo gehiago	0,0	0,0	0,0	1,0	1,0	0,9
Guztira	100	100	100	100	100	100


**10.** Tokiko biztanleriaren eta atzerriko biztanleriaren adin egiturak sexuaren arabera aldatzen baditugu, ikus dezakegu tokiko bi pertsonetatik batek 45 urte edo gehiago dituela, atzerriko hamar pertsona batetik batek bakarrik duela adin hori.

Diferentzia 25 urtetik 44 urtera arteko tartean ematen da eta tokiko biztanleria zaharra goa dela erakusten digu, atzerritar gutxi baitaude 65 urte baino gehiago dituztenak.

Hortaz, lan egin dezakeen tokiko bi pertsonetatik bat mendekoa da. Lan egin dezakeen atzerriko laur pertsona terditik (4,6) bat mendekoa da Hau da, tokiko pertsonen mendekotasuna atzerritarren esku dago, gero eta gehiago. Indize hori lortzeko, zatiketa egin

behar da 16 urtetik beherako eta 65 urtetik gorako pertsonen batuketaren eta 17 urteren eta 64 urteren arteko pertsonen batuketaren artean.

7. grafikoa. Populazioaren adin egitura nazionalitateen arabera. Getxo, 2009



**11.** Erroldatutako atzerritarren %55a zuzenean atzerritik datorrena da; hortaz, immigrazioa lehendik finkatuta dauden deialdiaren bitartez hasten da, orokorrean.

Erroldatutako gainontzekoen %37a beste udalerrietatik datorrena da, gehienetan Bilbo eta aldameneko herrialdeetatik. Beste udalerrietatik datozen pertsonen %71,4a Bizkaiko udalerri batetik dator. Esate baterako, %27,7a, gutxi gorabehera, Bilbotik dator. Hona hemen aldameneko udalerriak: Leioa (%12), Erandio (%6,1), Berango (%4,6), Sopela (%2,6) eta baita Barakaldo ere(%4).

Alta berrien %2a Getxon jaio direnena da.

4. taula. Getxon erroldatua dagoen atzerri populazioa jatorri-udalerrri garrantzitsuenak. Guztira eta portzentajeak. 2009

	Guztira	%
Bilbo	553	27,7
Leioa	239	12,0
Erandio	122	6,1
Madril	119	6,0
Berango	96	4,8
Barakaldo	80	4,0
Sopela	52	2,6
Gainerakoak	735	36,8
Guztira	1.996	100

5. taula. Getxon erroldatua dagoen atzerri populazioa Errolda-Alta tipo eta sexuaren arabera. Guztira eta portzentajeak. 2009

Errolda-alta motak	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
Ez-egitezko alta	62	1,2	33	1,6	29	0,9
Beste arrazoi batzuetan oinarritua	58	1,1	29	1,4	29	0,9
Beste udalerri batetik etorria	1.915	36,7	777	36,6	1.138	36,7
Atzerritik etorria	2.860	54,7	1.115	52,5	1.745	56,3
Getxon jaioa	106	2,0	57	2,7	49	1,6
Alta mota identifikatu gabea	223	4,3	112	5,3	111	3,6
Guztira	5.224	100,0	2.123	100,0	3.101	100,0


## Egoitza eta hezkuntzari buruzko aspektuak

**12.** Gaur egun ez dago Getxoko biztanleria atzerritarren banaketa sozio espazialik, eta barrutien arabera tokiko biztanleriaren antzera banatuta dago.

Gaur eguneko immigrazio zifrek ere ez digute erakusten kontzentrazio etnikoak ematen direnik.

Barrutien arabera, immigrazioaren portzentaje handiena Algortakoa(%6,9) da, Areeta (%6,3) eta Andra Mari (%5,1) datoz gero.

8. grafikoa. Getxon erroldatua dagoen bertako eta atzerriko populazioaren banaketa udal-barrutien arabera. 2009



6. taula. Getxon erroldatua dagoen bertako eta atzerriko populazioaren banaketa udal-barrutien arabera. 2009

	Getxo		1. Barrutia (Andramari)		2. Barrutia (Algorta)		3. Barrutia (Areeta)	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Bertokoak	76.507	93,6	13.795	94,9	36.845	93,1	25.867	93,7
Atzerritarrak	5.224	6,4	741	5,1	2.734	6,9	1.749	6,3
Guztira	81.731	100	14.536	100	39.579	100	27.616	100

**13.** Getxoko etorkinen %14,3a Andra Marin bizi da, %52,3 Algortan eta %33,5 Areetan.

7. taula. Getxon erroldatua dagoen atzerriko populazioa udal-barruti eta sexuen arabera, 2009


	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
1. Barrutia (Andra Mari)	741	14,2	315	14,8	426	13,7
2. Barrutia (Algorta)	2.734	52,3	1.130	53,2	1.604	51,7
3. Barrutia (Areeta)	1.749	33,5	678	31,9	1.071	34,5
Guztira	5.224	100	2.123	100	3.101	100

**14.** Beharrezko arreta guztiekin, hezkuntza mailari dagozkion errolda datuekin, Getxoko udalerrian 2009. urtean erroldatutako atzerritarren %37,7ak bigarren mailako ikasketak ditu, %33,6ak ez du ikasketarik edo aurre eskolako edo lehen mailako ikasketak ditu.

Azkenik, %21,7ak dio erdi-goi mailako, goi-mailako edo master ikasketak dituela.

Ikasketa maila handiagoa dute gizonek emakumeek baino.

9. grafikoa. Atzerriko populazioaren ikasketa maila sexuaren arabera. Getxo, 2009



8. taula. Atzerriko populazioaren ikasketa maila sexuaren arabera. Getxo, 2009

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
Ikasketarik ez, eskolaurrea eta lehen mailakoak	1.756	33,6	636	30,0	1.120	36,1
Lanbide heziketa	365	7,0	169	8,0	196	6,3
Bigarren mailakoak	1.968	37,7	757	35,7	1.211	39,1
Erdi-goi mailakoak	336	6,4	114	5,4	222	7,2
Goi mailakoak	755	14,5	419	19,7	336	10,8
Master eta graduondoak, doktoretza	44	0,8	28	1,3	16	0,5
Guztira	5.224	100	2.123	26	3.101	19

**15.** Eremu geografikoen arabera, maila txikiagoa antzeman daiteke Magrebetik, Afrikatik eta Asiatik datozenen artean, Europa, Ozeania, Estatu Batuak edo Kanada herrialdeetatik datozenen aurrean.

Orokorrean, tokikoen eta atzerritarren ikasketen egitura ez da oso bestelakoa, bigarren mailako ikasketei dagokienez salbu. Latinoamerikako biztanleriak erdi mailako irudia erakusten du.

9. taula. Atzerriko populazioaren ikasketa maila jatorri eremuen arabera. Getxo, 2009

	Lehen maila arte	Lanbide H.	Bigarren maila	Erdi-goi maila	Goi maila	Graduondo	Guztira
EB 27	26,8	10,3	24,6	7,3	29,2	1,9	100
Gainerako Europa	18,9	13,5	13,5	13,5	37,8	2,7	100
Magreb	50,0	3,7	33,6	2,2	10,4		100
Gainerako Afrika	45,5	12,1	24,2	12,1	3,0	3,0	100
Asia	41,9	5,2	33,7	6,2	12,7		100
AEB eta Kanada	11,5	8,0	20,7	12,6	37,9	9,2	100
Latinoamerika	34,9	6,1	43,3	6,1	9,3	0,3	100
Ozeania	11,1		33,3		44,4	11,1	100
Guztira	33,6	7,0	37,7	6,4	14,5	0,8	100

**16.** Getxoko udalerrian unibertsitarioak ez diren mailatan matrikula eman duten 700 ikasle atzerritar inguru dago; horietatik %50a Lehen Mailako Hezkuntzan; %24a DBHn eta %15a Haur Mailako Hezkuntzan.

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, tokiko ikasleak berdin banatuta daude ikastetxe pribatu, kontzertatu(%48,2) eta publikoen (%51,8) artean; atzerriko ikasleen %82a titulartasun publikoko ikastetxeetan matrikulatuta dago.

Getxon matrikulatu diren (8.076) %8,6a dira.

10. taula. Getxon, ikasketa ez unibertsitarioetan matrikulatua dagoen atzerriko ikasleria ikasketa mailen arabera. Guztira eta aldaketak, zenbaki absolutu eta ehunekoetan, 2003-2009 ikasturteak


	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	Ald. Abs.	Ald. %
Hauz Hezkuntza (1. eta 2. zikloak)	86	102	104	101	106	104	18	20,9
Lehen Hezkuntza	184	232	284	318	359	357	173	94,0
H. Berezia (Hasierako ikasketak)			1	1	1	1	1	
DBH	63	92	102	147	170	167	104	165,1
Batxilergoa	16	16	15	33	33	32	16	100,0
Lan trebakuntza						2	2	
Erdi mailako L.H.	9	11	12	20	18	18	9	100,0
Goi mailako L.H.	6	12	14	13	12	13	7	116,7
Guztira	364	465	532	633	699	694	330	90,7



**17.** Mailei dagokienez, nabarmena da Haur Hezkuntzako atzerriko ikasleen garrantzia, % 12,3a, guztiarekiko %8,6 gehiago; horrek era-

kusten digu hezkuntza sisteman sartzen joan direla pixkanaka.

*10. grafikoa. Getxoko ikasleriaren banaketa nazionalitate eta ikasketa mailaren arabera. 2009*



Atzerriko ikasleen %78,2a Latinoamerikako herrialdeetatik dator. Nazionalitateen arabera, gehiago dira Boliviatik datozenak (%42,9). Ekuadorreko (%9,9) eta Kolonbiako(%9,2) ikasleak datoz gero.

## Aspektu administratiboak

### 18. Marko orokorra

Espanian dagoen atzerriko erregimen juridikoaren ezaugarri nagusia da atzerriko etorkinen eta pertsona nazionalen eskubide aitortuen berdinketa murriztuaren printzipioa: ez dute titulartasun berdina eta nazionalitatearekin lotuta dago.

Gainera, titulartasuna eta atzerriko biztanleen eskubide aitortuak bizitzeko eta lan egiteko duten baimen administratiboaren arabera izango da. Baimen hori lortzea zaila da, eta, horregatik, udalerrian bizi diren asko, batasunetik kanpoko atzerritarrak, administrazio irregulartasun egoeran daude. Lege dokumentaziorik ez izateak, gainera, eskubideen titulartasuna murrizten diete, are gehiago, eta ahultasun sozialeko egoeran jartzen ditu.

### 19. Erregulartasun tasa, Getxon

Ikuspegiren arabera, Bizkaiko Europar Batasunetik kanpoko biztanleria atzerritarren %72ak bertan bizitzeko baimena duela.

Lan eta Immigrazio Ministerioak baimen datuak kendu ditu, probintzien arabera. Hori dela eta, Bizkaiko datuak estropolatu eta Getxoko nazionalitate nagusiei dagozkien erregulartasun tasak aplikatzen badizkiogu, 2009ko urtarrilaren 1ean 3.757 pertsonen ohiko egoitza izango dute, administrazioaren ikuspuntutik.

Baina Getxoko kasuan, datu adierazgarri eta oso garrantzitsu bat dugu, Boliviako biztanleriak ez baitu nahikoa denbora izan egoitza

baimena eskuratzeko (Kolonbiako edo Ekuadorreko pertsonak ez bezala); hortaz, nazionalitateko hori duen %29ak bakarrik du baimena Bizkaian, baimendutako guztien bolumenari eragiten diolarik.

Gauza bera gertatzen da duela gutxi etorri den biztanleria jakinarekin, Paraguayko biztanleriarekin gertatzen den bezala, % 19a bakarrik baitago erregularizatuta Bizkaian.

Hortaz, kalkulu errealistagoa oinarri hartuz, ziu-rrenik egoitza baimena duten pertsonak 3.300 pertsona inguru izan daitezke, Getxon, %63a, alegia, Bizkaiko batez bestekoa beheranzko joerarekin haztatu beharko litzateke eta.



11. taula. 2008ko abenduaren 31an Getxon erresidentzi baimena duen atzerriko populazioaren estimazioa

	Bizkaiaren erroldatutako atzerriko populazioa 2009/01/01	Egoitza baimena. 08-12-31 (MTIN)	Erregularatasun tasa (Bizkaia)	Getxon erroldatutako atzerriko populazioa. 09.01.01	Getxon baimena duten pertsonen estimazioa
Rumania	8.687	8.609	0,99	355	352
Kolonia	6.883	6.286	0,91	379	346
Ekuador	3.323	3.239	0,97	263	256
Bolivia	10.130	2.937	0,29	1.546	448
Peru	1.446	1.520	1,00	228	228
Paraguai	2.928	375	0,13	426	55
Maroko	4.940	3.772	0,76	119	91
Txina	2.449	2.206	0,90	101	91
Filipinak	351	415	1,00	233	233
Gainerako ez komunitarioak	49.960	30.456	0,61	493	301
EB 25	15.759	16.633	1,00	1.101	1.101
Guztira	65.719	47.089	0,72	5.244	3.757

## 20. Finkatze soziala

2008ko abenduaren 31n, Gizarte Zerbitzuak igorritako finkatze sozialeko 237 txosten erregistratuta zeuden, guztira, aldi bateko egoitza eskaera izapidetzeko Gobernu ordezkariordetza.

- Eskaera guztien %80,4a 18 eta 39 urte bitartekoekin egin dute.
- Eskaera guztien %67,4a emakumeena da eta gainontzeko %32,6a gizonena.
- Finkatze sozialeko eskaeren %58,7a bolibiarrek egindakoa da.
- Datu garrantzitsuena da 2008an finkatze eskaerak bost aldiz bikoiztu direla 2007. urtearekiko, 47tik 237ra igaroz. Hortaz, immigrazioak denbora mugagabearen errotzeko borondatea erakusten du.

## Laneko eremua

**22.** Gizarte Segurantzako afiliatuen datuak estrapolatzea

Gizarte Segurantzako afiliatioari dagokionez, Getxora estrapolatzen baditugu EAEko egoitza baimenen eta Gizarte Segurantzako afiliazioen datuak, honako hau baieztatu dezakegu:

## 21. Etxebizitza eta familia berriz biltzea

35 txosten igorri dira, 2007. urtean baino bat gehiago, eta etxebizitza eskuragarritasuna egiaztatzen dute, familia berriro biltzeko eskaera egiteko, Gobernuaren ordezkariordetza, 2008. urtean.

- Berriro bildu diren pertsonetatik 20 emakumeak dira (%57,2) eta 15 gizonak (%43,8) dira.
- Eskatzaileen %45,7a 31 urtetik 40 urtera bitartekoa da.
- Eskatzaileen nazionalitate nagusiak dira Filipinarra (%24,2), Kolonbiarra (%21,2) eta Ekuadorrekoa (%18,2).
- Berriro bildutako pertsonen gehiengoak etxebizitza eskuratzen du alokairu kontratuan: Guztiarekiko %91,4ak.

12. taula. 2008ko abenduaren 31an Getxon Gizarte Segurantzari afiliatuta dagoen atzerriko populazioaren estimazioa

Rumania	127	Aljeria	2
Kolonia	186	Txina	51
Maroko	37	Argentina	37
Bolivia	315	Peru	149
Portugal	21	Frantzia	100
Ekuador	150	Italia	45
Brasil	18	Gainerakoak	558
Paraguai	0	Guztira	2.047

- Egoitzako eta laneko baimena duten pertsonak areagotzen badira, beren afiliazio proportzioa neurri berean areagotuko da. Ezkutuko ekonomiari dagokionez, 1.400 eta 1.500 atzerritar balioetsi

ditzakegu, ez immigrazioagatik, baizik eta indarrean dagoen immigrazio politikak ezartzen dituen zailtasunengatik, neurri handi batean.

**23.** 2008. urtean, 2.973 pertsoneri arreta eman zaie Getxoko Lan eta Garapen Ekonomikoko Behargintza Zentroan; horietatik % 71,3 tokikoak dira eta gainontzeko %28,7 atzerritarra da. Atzerritarren artean, % 79,2a latinoamerikarra da.

Era berean, laneko atalean jaso da atzerritarrek Getxoko Udalak aurrera eramaten dituen gizarteratze- laneratze programetan duten parte-hartzea areagotzen ari dela:

- Auzolan programa eta
- Getxo Activa programa

13. taula. Getxolan - Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuan harrera izan duen populazioa sexu eta nazionalitatearen arabera. 2008

	Guztira Getxo		Bertokoak		Atzerritarrak	
	K	%	K	%	K	%
Gizonak	1.578	53,1	1.133	53,4	445	52,2
Emakumeak	1.395	46,9	987	46,6	408	47,8
Guztira	2.973	100	2.120	100	853	100

14. taula. Getxolan - Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuan harrera izan duen atzerriko populazioa sexu eta jatorri eremuen arabera. Guztira eta ehunekoak. 2008


	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%
EB25+EEE+Suitza	84	9,8	46	10,3	38	9,3
Gainerako Europa	2	0,2	1	0,2	1	0,2
AEB eta Kanada	1	0,1		0,0	1	0,2
Magreb	55	6,4	37	8,3	18	4,4
Gainerako Afrika	23	2,7	16	3,6	7	1,7
Asia	12	1,4	8	1,8	4	1,0
Latinoamerika	676	79,2	337	75,7	339	83,1
Guztira	853	100	445	100	408	100

## Adierazle sozialak

**24.** Getxoko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak 9.250 pertsoneri eman die arreta, esku hartutako familia kide guztiak batuz.

- Erabiltzaileen artean %56,0 emakumeak dira eta %44,0 gizonak.
- %66,0 bertokoak dira eta gainontzeko %34,0 atzerrikoa da.

11. grafikoa. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan harrera izan duen populazioa nazionalitate eta sexuaren arabera



**25.** 2008. urtean, 618 atzerritarren jaso zuten errenta aitortpena. Gaur egun Getxoko hartzaileen % 48,9a dira. Hamarretik zortzi emakumeak dira (%79,4).

Feminizazio hori, pertzepzioan ere, tokikoengan ematen da, % 75,8 emakumeak baitira.

*15. taula. Oinarrizko Errenta jasotzen duen populazioa sexu eta nazionalitatearen arabera. Getxo, 2008*

	Guztira Getxo		Bertokoak		Atzerritarrak	
	K	%	K	%	K	%
Gizonak	306	24,2	179	27,7	127	20,6
Emakumeak	959	75,8	468	72,3	491	79,4
Guztira	1265	100	647	100	618	100

**26.** Bizikidetzako kide kopuruaren arabera, atzerriko pertsonen kasuan, oinarrizko errentak gehienentzako onak dira. Hala, atzerriko familia unitateen %28,6a bakarrik da kide bakarreko familia, tokikoen kasuan areagotu egiten da, %63,2a baitira.

Halaber, tokiko hartzaile bakoitzeko 1,52 pertsona dira onuradunak, eta 2,48 pertsona atzerritarrei dagokienez.

*16. taula. Oinarrizko Errenta jasotzen duen populazioa nazionalitate eta Bizikidetzak-unitatearen kide kopuruaren arabera. Getxo, 2008*

Bizikidetzak-unitatearen kideak	Guztira Getxo		Bertokoak		Atzerritarrak	
	K	%	K	%	K	%
1	586	46,3	409	63,2	177	28,6
2	315	24,9	165	25,5	150	24,3
3	201	15,9	51	7,9	150	24,3
4	114	9,0	16	2,5	98	15,9
5 edo gehiago	49	3,9	6	0,9	43	7,0
Guztira	1.265	100	647	100	618	100

**27.** Adinari dagokionez, oinarrizko errenta jasotzen duten atzerritarren batez besteko adina jaisten ari da, pixkanaka, 42 urtetik 38 urtera igaro da, eta hartzaileen %77a 45 urtetik beherakoa da.

Oinarrizko errenta jasotzen duten tokiko pertsonen dagokionez, %55a 45 urtetik beherakoa da, eta %45a 45 urtetik gorakoa.

*17. taula. Oinarrizko Errenta jasotzen duen populazioa nazionalitate eta adin taldeen arabera. Getxo, 2008*

	Guztira Getxo		Bertokoak		Atzerritarrak	
	K	%	K	%	K	%
< 25	29	2,3	3	0,5	26	4,2
25tik 34ra	335	26,5	93	14,4	242	39,2
35tik 44ra	330	26,1	124	19,2	206	33,3
45tik 59ra	303	24,0	187	28,9	116	18,8
60tik 74ra	164	13,0	137	21,2	27	4,4
> 74	104	8,2	103	15,9	1	0,2
Guztira	1.265	100	647	100	618	100

**28.** 466 atzerritarrek gizarte larrialdietako laguntzak jaso dituzte 2008. urtean, emandako laguntza guztien % 47,7a, alegia.

Sexuen arabera, %20,2 gizonak izan dira eta %79,8 emakumeak. Atzerritarren kasuan, emakumeak gehiago dira, zertxobait: %83.

*18. taula. GLL jasotzen duen populazioaren banaketa sexuaren arabera, 2008*

	Guztira Getxo		Bertokoak		Atzerritarrak	
	K	%	K	%	K	%
Gizonak	197	20,2	118	23,1	79	17,0
Emakumeak	779	79,8	392	76,9	387	83,0
Guztira	976	100	510	100	466	100

**29.** Bizikidetzaren unitatearen tamainaren arabera, tokikoen artean kide bakarrekoa edo bi kidekoa nabarmentzen da (%63,8), eta atzerritarren artean bi kide edo gehiagokoa.

Tokikoen artean pertsona bakarrekoko bizikidetzaren nagusi da (%36,3), atzerritarrekin alderatuz gero (%20).

19. taula. GLL jasotzen duen populazioa nazionalitate eta Bizikidetzaren unitatearen kide kopuruaren arabera. Getxo, 2008

Bizikidetzaren unitatearen kideak	Guztira Getxo		Bertokoak		Atzerritarak	
	K	%	K	%	K	%
1	278	28,5	185	36,3	93	20,0
2	230	23,6	140	27,5	90	19,3
3	220	22,5	107	21,0	113	24,2
4	148	15,2	46	9,0	102	21,9
5 edo gehiago	100	10,2	32	6,3	68	14,6
Guztira	976	100	510	100	466	100

**30.** Adinari dagokionez, oinarriko errentarekin gertatzen dena errepikatzen da. Gizarte larrialdietako laguntzak jasotzen dituzten tokikoen %31,2a 44 urtetik beherakoa da, atzerritarren kasuan, ordea, %80,7a.

Alderantziz, tokikoen %39,4a 60 urtetik gorakoa da eta atzerritarren %2,6a bakarrik.

20. taula. GLL jasotzen duen populazioa nazionalitate eta adin taldeen arabera. Getxo, 2008

	Guztira Getxo		Bertokoak		Atzerritarak	
	K	%	K	%	K	%
< 25	27	2,8	5	1,0	22	4,7
25tik 34ra	237	24,3	46	9,0	191	41,0
35tik 44ra	271	27,8	108	21,2	163	35,0
45tik 59ra	228	23,4	150	29,4	78	16,7
60tik 74ra	118	12,1	107	21,0	11	2,4
> 74	95	9,7	94	18,4	1	0,2
Guztira	976	100	510	100	466	100

**31.** 300 pertsona izan dira Getxoko udalerrian etorkinei arreta juridikoa emateko Heldu programan arreta jaso dutenak, 2008.urtean.

Arreta jaso duten bi herenak emakumean dira (%66,6) eta %96a latinoamerikarrak dira. %72,6a Boliviatik dator, eta, %13,0a, Paraguyatik, -oso aldentuta-. Arreta bi nazionalitate horietan biltzen da; izan ere, bi nazionalitate berrienak dira, eta ugariena, lehenengoaren kasuan.

21. taula. Heldu Programan harrera izan duen atzerriko populazioa Eremu Geografikoen arabera. Getxo. 2005-2008

	2005	2006	2007	2008
Gainerako Europa	30	28	5	
Gainerako Afrika				2
Magreb	5	4	4	6
Asia	2		1	1
Latinoamerika	441	267	339	288
Beste batzuk	31	3	4	3
Guztira	509	302	353	300

## ATZERRIKO BIZTANLERIAREKIKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK. Ikuspegi barometroa

1. Euskal biztanleriak immigrazioa ez du arazo gisa hartzen, ez Euskadiko arazo ez eta arazo pertsonal gisa, ezta gutxiagorik ere.
2. Euskal biztanleria kultur aniztasunaren alde dago, baina onarpen eremuan oinarritzen den integrazioa planteatzen du, 2007ko eta 2008ko barometroetan baino gehiago.
3. Euskal biztanleriak uste du biztanle atzerritarrek osasun arretako eta hezkuntzarako eskubidea izan behar dutela, baina 2008. urtean baino gutxiagok, eta sarbidea murrizten du zerbitzu eta eskubide jakinetara, erregularizatuta daudenetara, alegia.
4. Euskal biztanleek, aurreko urteetan bezala, ez dute bere nortasunarekiko mehatxua antzematen, ezta euskararekiko mehatxua ere, atzerriko pertsonak etortzeagatik.
5. Euskal biztanleen erdiak baino gehiagok (%60ak gutxi gorabehera), 2007an eta 2008an bezala, uste du etorkin gehiegi edo nahikoa dagoela, baita erroldatutako portzentajea ematen zaienean ere.
6. Euskal biztanleen aurreko urteetan baino onginahi gutxiagorekin epaitzen du immigrazioaren erabilgarritasun ekonomikoa eta eragin negatiboaren portzentajeak areagotzen ditu.
7. Euskal biztanleek atzerritarrekiko estereotipo faltsuak eta aurreiritzi negatiboak mantentzen dituzte oraindik ere, aurreko urteetan bezala. Badirudi estereotipo eta aurreiritzi horiek autonomoak direla, neurri batean, benetako gertaerekiko.
8. Euskal biztanleen gehiengoak uste du atzerritarren sartzeko baimena lotuta dagoela lan kontratua izatearekin.

